

HERRI BOZAK IPARRALDEAN

# Abertzaletasuna transbertsalitatearen eredu

| MIKEL ASURMENDI |

ABERTZALEEK ZIRT EDO ZART egin behar zutela adierazi genuen bigarren itzuliari begira, baita egin ere. Abstentzioaren gorakada azpimarratu genuen eta %40koa izan da berriz ere. Argazki hau utzi digute Ipar Euskal Herriko udal hauteskondeek.

## Zentro-eskuina nagusi BABn

Jean-Rene Etchegaray zentrista eta Baterako kidea –UMP eskuindarraren sostenguz– da hiriburuko auzapez berria, doi-doi baina. 26 bozen aldez garaitu zaio PSko Etchetori. Michel Veunac zentrista Biarritzeko auzapez berriak UMPko Max Brisson garaitu du. Borotraren legatua eta abertzaleen laguntza baliatuz. Angelun PSko Jean Espilondoren porrota eta UMPko Claude Olive auzapez berriaren izendapena baieztatu da. Zentro-eskuina nagusi da Baiona, Angelu eta Biarritzen (BAB).

## Donibane Lohizune, Hendaia...

Donibane Lohizunek UMPkoen plaza izaten jarraitzen du, baita Urruña, Ziburu eta oro bat Lapurdiko hainbat herri ere. Sozialistek Hendaiaiko Herriko Etxea berreskuratu dute Kotte Ezenaroren eskutik, abertzaleen sostenguarekin. Hendaiakoa da PSko garaipen bakarra Iparraldean. Paueko kontseilari Ezenarro indartua jalgi da. Abertzaleek zirt edo zart egin behar zuten lehen itzuliaren ondoren, baita aliatu izan dituzten indar ekologisten eta ezkertiarren ildoan egin ere. Emaitzak ez dira nahi edo espero zutenak, hain ziur, baina koherentziaz jardun dute. Uztaritzen Bruno Carrere abertzalea da auzapez, abertzaleen aurrerakadaren lekuko –Baigorriekin batera Uztaritze ezkerreko abertzaleen plaza eta



GAIZKA IROZ

Jean-Rene Etchegaray Baionako auzapez berria, Batera plataformako kide zentrista.

indargunea da—. Senperen izan da ustekabea, abertzaleek auzapezgoa galdu baitute UMPren mesederako.

## Baxenabarre

Baigorri ezkerreko abertzalearen plaza eta indargune dela baieztatu da, Donibane Garazi –auzapez Alphonse Idiart eskuindarra duela– eta Donapaleu herri nagusien aldean, UMPko Jean-Jacques Loustaudinek jarraituko du karguan honetan. Edonola ere, Baxenabarren EH Bairen indarra eta kolorea begi-bistakoak dira.

**Bruno Carrere abertzalea da auzapez Uztaritzen. Baigorriekin batera, ezkerreko abertzaleen plaza eta indargunea**

## Zuberoa

Mixel Etxebestek auzapez jarraitzen du Maulen. Ezkertiarrek estutu dute, alta. Louis Labadot komunistak indartsu segitzen du oposizioan. Ezker abertzaleko Beñat Elkegarai ere sendo sartu da plazan.

## Iparraldea eta Estatu

Herri Elkargoetako hautetsiak ere hautatu dira. Artean, emaitza zehatzik gabe, hautetsi abertzalek –ezkerreko nahiz EAJ-PNBren zentristen ildokoek– zenbait aulki bereganatu dutela aurreratu dezakegu. Argazkia osatzeko bi zertzelada: abertzaleena ekimen transbertsalaren eredu da. Estatuan milaka zinegotzi eta hamalau hiriko udalbatza lortu dituen –Marine Le Penek gidatutako– eskuin muturreko FNk tokirik ez duela Iparraldean. ■

